



IKUSPEGI@K BAROMETROA 2011


Atzerriko immigrazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak

Begirada ale honetan, 2011ko Barometroko datuak jaso ditugu; hain zuzen, EAEko herritarrek etorkinak nola hautematen dituzten eta haiekiko zer-nolako jarrera duten erakusten dutenak. Laburbilduz, datuek erakutsi dute, azken urte honetan, zenbait iritzitan krisiaren ondorio negatiboak islatu diren arren, oro har, EAEko herritarrek etorkinen gainean iritzi hobea izan dutela.

1. Arazoaren pertzepzioa


Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?

(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- EAEko herritarrek ez dute arazotzat jotzen immigrazioa; herritarren %2,4k baino ez du aipatu, era espontaneoan, immigrazioa Euskadiko arazo nagusia dela. Guztira, herritarren %10,7k aipatu du gai hori.
- Nabarmenezkoa da, 2010eko datuekin alderatuta, herritar gutxiagok uste duela immigrazioa arazo dela; %15,4k hautematen zuen arazo gisa 2010ean, eta %10,7k ikusi du hala 2011n. Jaitsiera handi hori are esanguratsuagoa da, ekonomia-krisian sartuta gaudela kontuan hartzen badugu.
- Normalean, halako egoeretan, immigrazioaren gaineko iritzi negatiboak areagotzeko joera izaten da.
- Hiru erantzun espontaneoak kontuan hartuta, bertako biztanleen %10,7k jo du arazotzat, honako hauen ondoren: langabezia (%86), ekonomiari loturiko arazoak (%29), ETA (%17), klase politikoa (%14) eta pentsioak (%11,9).

Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?*




*2010etik aurrera emandako gaien zerrenda ez da aurreko urteetakoak. Europako datuekin konparatzeko EUROSTATEk eskaintzen duen gaien zerrenda erabiltzea erabaki dugu.

- Immigrazioa arazo gisa hautematen dutenen artean, etorkin-kopurua areagotzea arazotzat jotzen du biztanleen %14,9k.
- Arazoen artean lehena dela uste du biztanleen %4,2k, Euskadin immigrazioa arazo dela modu espontaneoan adierazi dutenen bikoitzak.
- Hala ere, gizarte- eta ekonomia-arazoak dira, oraingo honetan ere, euskal gizartearen kezka-iturri nagusi; eta, horren barruan, langabezia eta bizitzaren kostua daude buruan.

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien?


(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)




- %0,8k jo du immigrazioa arazo pertsonaletan lehenengotzat. Aipamen guztiak kontuan hartuta, EAEko herritarren soilik %5,6k jo du immigrazioa arazo pertsonaltzat.
- Ehuneko hori 2010ekoa baino ia hiru puntu txikiagoa da; alegia, %8,2k zuen iritzi hori 2010ean, eta %5,6k izan du 2011n.
- Arlo pertsonalean, arazo aipatuena langabezia (%56,2) eta ekonomiaren arloko gaiak (%34,7) izan dira.

Konparazioa aurreko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak?

(Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneo)




- 2007tik aurrera arazo pertsonal nagusietan izan den bilakaera aztertuta, argi eta garbi ikus daiteke langabezia dela EAEko biztanleen arazo nagusia. Gainera, adierazle hori da gehien hazi dena 2010etik 2011ra bitartean; hain zuzen, %47tik %56ra igo da.
- Immigrazioak, berriz, eten egin du 2007tik 2010era bitartean izan zuen gorako joera (%4,2 2007an, eta %8,3 2010ean), eta %5,5ek jo du arazotzat 2011n.

2. Immigrante kopuruaren pertzepzioa**Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik, zure ustez, gutxi gorabehera zenbat jaio dira atzerrian, Espainiatik kanpo?**

- Bertako biztanleek uste dute biztanleen %17,2 atzerritarra dela. Etorrin-kopuruaren gaineko ikuspegi hori ez dator bat 2011ko urtarilaren leko erroldatze-datu errealekin. Hain zuzen, datu horien arabera, %6,6 da atzerritarra.
- Hortaz, bertako biztanleen iritziz, EAEn dagoen atzerritar-kopurua benetan dauden ia hirukoitza da.
- 2007. urteaz geroztik, bertako herritarrek EAEn dagoela uste izan duten atzerritar-kopurua, batez beste, %16 eta %18 artekoa izan da beti. Aitzitik, erroldatutako atzerritar-kopuruak gora egin du urtero. Hortaz, ez datoz bat bertakoen ikuspegia —EAEn dagoen atzerritar-kopurua egonkor mantendu dela uste dute— eta erroldatuak datuek erakutsi duten hazkunde objektiboa.

3. Elkarbizitza


Bizitzeko lekua aukeratu beharko bazenu, hiru aukera hauetatik zein hartuko zenuke?




- Inkestatuak %62,5ek nahiago du biztanle gehienak bere arraza edo talde etniko berekoak dituen auzoan bizi.
- Hamarretik bik (%23) nahiago du biztanle guztiak EAEko herritar gehienek bere arraza edo talde etniko berekoak diren lekua, bizitzeko.
- Eta, azkenik, soilik %8k du nahiago arraza edo talde etniko desberdinetako pertsona asko dauden lekuan bizi.

Hemen, EAEan, bizi zarela, zenbat denbora ematen duzu aisialdian beste herrialde batzuetako pertsonekin?

- Inkestaturako hamarretik lauk (%46,1) baieztatu du aisialdian soilik noizean behin izaten dela harremanetan atzeritarrekin. %25,4k, berriz, baieztatu du aisialdian ez duela inoiz harremanik izaten atzeritiko etorritako jendearekin, eta %16,9k adierazi du maiz izaten duela harremana atzeritarrekin.
- Alegia, hamarretik zazpi oso gutxitan izaten da harremanetan etorkinekin, edo inoiz ere ez. EAEko eremu handian atzeritar gutxi dagoela ere bada horren arrazoi.




Zure ustez, EAEan, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdindu daude?



- Oro har, EAEko biztanleen iritziz, atzeritarrekin duten harremana ez da aldatu azken urtean (%57,5).
- Nolanahi ere, jende gehiagok adierazi du harremanak okerrera egin duela (%23,6), hobera egin duela baino (%13,7).
- Atzeritarrekin duten harremana ez dela aldatu adierazi dutenen kopurua 9 puntu murriztu da 2008. urtetik hona (%66,5ek zuen iritzia hori 2008an; %62,6k 2009an; eta %57k 2010ean), eta harreman horrek okerrera egin duela uste dutenen kopurua 9 puntu baino gehiago gehitu da (%14,6 2008an; %19,3 2009an; eta %26 2010ean).


Nola ikusten dituzu atzerritarrak, bertakoekin alderatuta?



- Oro har, bertako herritarrek begi onez ikusten dituzte etorkinak, salbu matxismoari buruzko gaitan. Hain zuzen, bertako herritarren hirutik bik (%68,9) uste dute atzerritarrek matxistagoak direla bertakoak baino.
- Bestalde, bertako biztanleek iritzi hobexegoa dute euren buruaz, atzerritik etorritako etorkinez baino.

4. Kultur-aniztasunaren kudeaketa

Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan diezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




Hasiera batean, EAEko herritarrek ondo ikusten dute kultura-aniztasuna (%57,8).

- Beste talde etniko batzuk egoteak kultura aberasten duela pentsatzen dute eta horren alde daude: %52 horrekin bat dator; eta %23,8 ez dago horrekin ados (2010ean, %45,1 ados zegoen, eta %45,9 ez).
- %57k uste du etorkinen erlijio-jarduteek ez dutela arriskuan jartzen gure bizitzeko era; %24k, ordea, baietz uste du. 2010eko datuekin alderatuta, gora egin du iritzi bata zein bestea duten biztanleen kopuruak: 2010ean %53,9k uste zuen ez dakartela arriskurik, eta %20,9k baietz pentsatzen zuen. Zalantzati agertu direnen kopurua murriztu dela erakutsi dute datuek.
- EAEko herritarren %61,7k ez du uste atzerritarrek beren kultura eta ohiturak alde batera utzi behar dituztenik, hemen erabat onartuak izan daitezela (%57,8k zuen iritzi hori, 2010ean).

Orain zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzaren zein neurritan zauden ados edo kontra

Euskal gizarterako, hobe da bertakoek eta atzerritarrek hizkuntza komuna izatea




- Ia erdien ustez (%48,3), hobe da etorkinek eta bertako jendeak hizkuntza bera hitz egitea; hala ere, lautik bat (%36,4) ez da iritzi berekoa.
- Dena den, oso bestelakoak dira datu horiek eta 2004ko Barometroaren emaitzak: 2004an, hamar inkestatutik zortzi hizkuntza bera hitz egitearen alde agertu zen.
- 2011ko Barometroan horren alde agertu direnen kopurua 2010ekoaren antzekoa da; desadostasun-mailak, berriz, gora egin du, %25,6tik %36,4ra.

Euskal gizarterako, hobe da gizartea osatzen dugun pertsona guztiek ohitura eta usadio berak partekatzea




- Kulturako elementu komunak —ohiturak eta tradizioak, esate baterako— partekatzeari lotuta, iritziak nahiko polarizatuta daude.
- Inkestatuen %44,7k kulturako elementuak partekatzearen aldeko iritziak du, eta %39,4k horren kontrakoa. Polaritate hori zalantzati agertu direnen kopurua murriztu izanak indartu du; izan ere, aurreko urteetako datuen aldean, gora egin dute aipatutakoarekin ados dauden biztanleen eta ados ez daudenen kopuruek.
- Aurreko urteetako datuekin alderatuta, kultura-bizikidetzarekin ados daudenen kopurua altuena izan da 2008. urteaz geroztik; bestalder, horrekin ados ez daudenen kopurua altuena izan da 2007. urteaz geroztik.

Euskadin bizikidetzatza hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




- %67ren iritziz, bertako herritarrek ez dute zertan ahaleginik egin etorkinen zenbait ohitura eta tradizio ezagutzeko eta haietara egokitzeko.
- %67,1ek adierazi duenez, etorkinek, guztiz onartuak izan daitezten, uko egin behar diete bertako legediarekin gatazka eragiten duten beren erlijio edo kulturako alderdiei; hala uste dutenen kopuruak ia 18 puntu egin du behera, 2010eko datuen aldean.
- Aurreko urteetan bezala, %88,9k uste du bertako herritarrek ez dietela uko egin behar beren ohiturei eta tradizioei.
- %79,8ren iritziz, etorkinak saiatu behar dira bertakoen ohiturak eta tradizioak berenganatzen.

Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerriko pertsonak...?



- Inkestatutako hamarretik bostek ongi ikusten du atzeritarrek jatetxeak irekitzea (%52,3) edo beren saltokiak jartztea (%52,5).
- Bertako biztanleen ia erdiek ontzat jo dute, halaber, etorkinek elikadurari loturiko beren establezimenduak izatea (%50,9) edo beren artean beren hizkuntzan hitz egitea (%45,3).
- Ikus daitekeenez, biztanleek arazo gutxiago ikusten dute etorkinen jatetxe, saltoki edo elikadura-establezimenduetan, eta errazago onartzen dituzte horiek, etorkinek beren hizkuntzan hitz egitea baino. Azken hori ez dute hain ondo hartzen bertakoek, eta gogorrago errefusatzen dute.
- Aitzitik, bertako herritarren iritzia ez datoz bat hain exotikoak ez diren gaitan, kultura-eredu jakin batzuen munitzerago daudenetan; erlijio-gurtzarako lekuen gainean, esate baterako: %34k ondo ikusten du atzeritarren erlijio-jardueretarako guneak eraikitzea, baina %29,3k gaizki ikusten du hori.


5. Euskararen eragina



- EAEko biztanle gehienek ustez, immigrazioak ez du euskararen aurrerapena geldiaraziko (%60,5).
- Orobat, ez dute uste migrazioak euskararen erabilera murriztuko duenik ere, gaur egun euskara nagusi den EAEko gunetan (%61).
- 2011. urtean, joera-aldaketa gertatu da. Izan ere, 2008. urteaz geroztik, inkestatuen artean, gora egin du immigrazioak euskararen aurrerapena eta erabilera geldiaraz dezakeela uste dutenen ehunekoak. Hala ere, 2011n, iritzi hori dutenen kopuruak behera egin du, inkestatuen artean.

6. Eragina ekonomian


Esan izadazu honako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- Bertako herritarrek uste dute immigrazioak ekonomian eragin kaltegarria duela, onuragarria baino gehiago; baina nolabaiteko anibalentziak adierazi dute hori, eta ez dute eragin iritzi bataren edo bestearen alde argi eta garbi.
- Inkestatuen %47,5en iritziak, EAEra bizitzera eta lan egitera datozen pertsonen ondorioz jaitsi dira soldadak; %40,7k, ordea, ez du hala denik pentsatzen.
- %55,1ek uste du atzerritarrak etortzeak langabezia areagotzen duela, baina %29 ez dator bat iritzi horrekin.
- Bestalde, %70,5en arabera, immigrazioak kalte handiagoa eragiten die pobreei, aberatsen baino.
- Inkestatuen %43,2 bat dator ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko etorkinak beharrezko direla esatearekin; %38,9, ordea, ez dator bat baieztapen horrekin.
- %39,8ren ustez, egia da immigrazioari esker ekonomiak hobeto funtzionatzen duela, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako etorkinek; %36k, ordea, ez du hala denik pentsatzen.


7. Eragin sozialak

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- %64,2k pentsatzen du gizarte-babeseko sistemaren etekin handiegia jasotzen dutela. Dena den, ehuneko hori ia bost puntu txikiagoa da 2010ekoa baino.
- Orobat, %44,6ren iritziz, etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute, gero jasotzen dutena baino; %17,2k ordea, ez du hori pentsatzen.
- Eta atzerritarrak egoteak segurtasun gabezia eta delinkuentzia sorrarazten dituela pentsatzen duten ala ez galdetuta (baietz uste du biztanleen %46,1ek; %55,7k, 2010ean), %59,8k baieztatu du eragin kaltegarria duela herritarren segurtasunean; 2010ean, %61,4k pentsatzen zuen hori.


Kezkaturik al zaude atzerriko pertsona gehiagoren etorrerak zuregan edo zure familiarengan eragin ditzakeen kalteengatik?



- EAEko herritarren kezka nagusia da gizarte-laguntzak eta osasun-laguntza jasotzeko aukeretan immigrazioak izan dezakeen eragin negatiboa. Iritzi hobea dute, bestalde, etxebizitzaren eta irakaskuntzaren kalitatearen arloetan.
- Inkestaturen erdiek (%50) uste dute zenbat eta etorkin gehiago izan, orduan eta zailago izango dutela gizarte-laguntzak eskuratzea. Kezka hori nabarmen areagotu da, 2008an %41,6 baitzen iritzi horretakoa.
- Inkestaturen %44,6k adierazi du denbora luzeagoz itxaron behar izaten duela ospitaleetan; bestelako iritzia du biztanleen %51,9k.
- Etxebizitza bilatzeko orduan, %57,1en iritziz immigrazioak ez du eraginik, baina %40,6k baietz uste du.
- Amaitzeko, inkestatutako herritar gehienek arabera, irakaskuntzaren kalitateak ez du okerrera egingo atzerritarrek etortzearen ondorioz (%72,1).


8. Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




- EAEko herritarrak atzerritar guztiek osasun-laguntza izatearen (+%2,8) eta haien seme-alabek hezkuntza jasotzeko aukera izatearen (+%7,7) aldeko dira; 2010ean baino gehiago.
- Laguntza juridikoa ematearen aldekoago dira 2010ean baino (+%34,8), bai eta beste hauek ematearena ere: gizarte-laguntzak (+%3,3), familia berriz biltzeko laguntzak (+%6,4), botoa (+%2,8) eta babes ofizialeko etxebizitzak (+%3,9).

Zure ustez, EAEn bizi diren etorkinek doan izan behar al dituzte zerbitzu hauek...?



- Inkestatuen %37,6ren ustez, atzerritar guztiek eskubidea izan behar dute beren ama-hizkuntzako eskolak hartzeko; %29,6ren iritziz, ordea, EAEn legez dauden herritarrek baino ez lukete horretarako eskubidea izan beharko. Bestalde, inkestatutako lautik batek pentsatzen du etorkin batek ere ez lukeela eskubide hori izan beharko.
- Euskara- eta gaztelania-eskolei buruz, inkestatutako bertako herritarren erdiek adierazi dute, beren ustez, atzerritar guztiek izan beharko luketela euskara-eskolak (%49) edo gaztelania-eskolak (%50,7) hartzeko aukera. Hamarretik lauk, berriz, uste du EAEn legez dauden herritarrek baino ez luketela horretarako eskubidea izan beharko (%38,5ek, euskara-eskolak; eta %38,1ek, gaztelania-eskolak).
- Lanbide-prestakuntzako ikastaroak jasotzeko aukerari buruz galdetuta, bertako herritarren iritzia erdi eta erdi zatituta dago: %43,7ren iritziz, atzerritar guztiek izan beharko lukete aukera halako ikastaroak egiteko; eta %47,1en ustez, EAEn legez dauden etorkinek baino ez.


Zer jarrera izan behar lukete erakundeek Oinarrizko Errentari dagokionez?



- Etorkinek ez lukete jaso behar Oinarrizko Errentarik: bertakoentzat soilik izan behar luke
- Etorkin guztiek Oinarrizko Errenta jasotzeko modua izan behar lukete, baina premian dauden bertako guztiek jaso eta gero
- Administrazio-egoera erregularra dutenek soilik izan behar lukete Oinarrizko Errenta jasotzeko modua
- Etorkinek bertako biztanleen baldintza berberetan eskuratu beharko lukete oinarrizko errenta

- EAEko herritarren herenaren iritziz (%27,6), legezko administrazio-egoeran dauden atzerritarrek baino ez lukete izan beharko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko aukera.
- %31,7k uste du bertako jendeak lehenasuna izan beharko lukeela, eta bertako biztanle guztien errenta jasotzeko beharrak bete eta gero izan beharko luketela atzerritarrek errenta hori jasotzeko eskubidea.
- %33,6ren arabera, etorkinek EAEko bertako biztanleen baldintza beretan izan beharko lukete diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko aukera.
- %7ren iritziz, etorkin batek ere ez luke aukerarik izan beharko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko.


Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- Bestalde, %56ren ustez, etorkinek, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenez, ez dute lanik egin nahi edo ez dute lanik bilatzen; %21ek, baina, ez du hala denik pentsatzen.
- Halaber, bertako herritarren %65,9ren ustez, etorkinek gehiegi baliatzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta, azkenean, bereganatu egiten dute.

9. Immigrazio politika


Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokien atzerritar langileen kasurako?



- Inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea
- Lan-kontratu dutenei bakarrik sartzen uztea
- Etorkin atzerritarrak sartzea erabat debekatzea
- Ed/Ee


- Bertako biztanleen %11,1 etorkinei EAEn sartzeko inolako oztoporik ez jartzearen aldeko da (aurreko urteetako ehunekoa baino handiagoa da 2011koa); aitzitik, %6,4 inolaz ere sartzan ez uztearen aldeko da.
- %76,4k etorkinei EAera sartzan uztea onartuko luke, etorkinak lan-kontratuarekin etorriz gero.
- Edonola ere, ehunekoak gora, ehunekoak behera, beste inkesta eta azterlan asko eta askotan ikusi den bezala, lan-kontratua berme nahiko dela jotzen dute biztanle gehienek oraindik ere, ziurtasuna eragiten duelako eta susmoak uxatzen dituelako.

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




- EAEko biztanleak ekonomia-krisia ondo ari direla jasaten ematen du; izan ere, gehienek (%60) ez dute uste atzerriko langileak langabezia geratzea kanporatzeko arrazoi izan daitekeenik (2010ean %54,7k zuen iritzia hori).
- EAEko biztanleak zorrotzago dira indarrean diren legeak betetzeari loturiko gaitan: EAEko herritarren %40 inguru edozein delitu egiten duten atzerritarrak kanporatzearen aldeko da (2010ean baino tolerantiago dira herritarrek, urte hartan %47,1 baitzen atzerritar delitugileak kanporatzearen aldeko).

Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?



Esadazu, arren, zenbat atsegin dituzun honako herrialde edo eskualde hauetako pertsonak (0-10 eskalan; 0 = ez ditut atsegin, 10 = oso atsegin ditut).


Etorkin-taldeak aipatzea zaila bada ere, zure iritziz, zenbateraino integratu dira honako herrialde edo eskualde hauetatik etorritako pertsonak (0-10 eskalan; 0 = ez dira batere integratu, 10 = guztiz integratu dira).



Kulturaren, politikaren edo gizartearen arloetan gertukoago diren kolektiboek integrazio-maila handiagoa esleitzen zaie, eta begikotasun handiagoz hartzen dira, eta alderantziz:

- Begikotasun eta integrazio txikiena magrebtarrek (3,7 eta 3,2) eta Europa ekialdeko kolektiboek (4,3 eta 3,9) izaten dute, hau da, kulturaren edo gizartearen ikuspegitik urru-neroen direnek eta/edo aurreiritzi handienak dituztenek.
- Saharaz hegoaldekoak (5,5 eta 4,7), latinoamerikarrak (Kolonia, 5,3 eta 5,3; Ekuador, 5,3 eta 5,2; Peru, 5,3 eta 5,1; Bolivia, 5,3 eta 5) eta asiarrak (5,1 eta 4,4) nahikoren muga-mugan daude bi arloetan. Salbuespena, Saharaz hegoaldekoen integrazio-mailaren gaineko iritzia, ez baita nahikora —5 puntura— iritsi.
- EAEko herritarrek Argentinatik (5,9 eta 6,1) eta Europar Batasunetik (6,3 eta 6,7) etorritako etorkinei eta estatu-batuari (5,6 eta 5,9) diete begikotasunik handiena eta, hortaz, integrazio-maila handiagoa esleitzen diete horiei.

10. Tolerantzia-Indizea



- Atzerritik etorritako etorkinekiko tolerantzia-indizeak neurtzen ditu EAEko bertako herritarrek atzerritarren aurrean dituzten jarrera eta jokabideak. Tolerantzia-indizean laburbiltzen dira EAEko herritarrek etorkinekiko dituzten iritzia, jokabideak, balioak, sinesmenak, estereotipoak eta abar. Indizea zifra bakarrean adierazten da, Otik 100era bitartean, ikasketetako nola bailitzan, eta xede du zifra tarte horretan kokatzea, fenomeno horren aurrean zer-nolako jarrera dugun ezagutzea eta datozen urteetan izango dugun bilakaera ikustea.
- 2011n, bertako herritarrek 57,1 puntu lortu dituzte tolerantzia-indizean. 2008an lortutako 58,7 puntuetatik urrun dago datu hori (landa-lana 2008ko udaberrian egin zen, EAEn “krisia gizartearen barneratuta zegoela” jo aurretik), baina handixeagoa da 2010ean lortu genuena baino (56,6 puntu).

Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
65 urtekoak eta hortik gorakoak	Adina	0,001	18 urtetik 44rakoak
Ikasketarik gabekoak eta lehen eta bigarren mailakoak dituztenak	Ikasketak	0	Goi-mailako unibertsitate-ikasleak
Katolikoak, praktikanteak ala ez	Erlijioa	0	Agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak
Erdaldunak	Hizkuntza	0	Euskaldunak
Hilean 1.800 euro, gehienez	Diru-sarrerak	0	Hilean 3.000 eurotik gora
Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	0	Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritzen diren pertsonak	Lanbidea	0	Ikasleak eta lanean daudenak
Estatus baxua	Estatusa	0	Estatus altua
Eskuinekoa	Ideologia	0	Ezkerrekoa, zentro-ezkerrekoa eta ezkerrekoa
Espainiar nazionalistak	Abertzaletasuna	0	Euskal abertzale moderatuak
Espainiar soilik, eta euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	0	Soilik euskaldun eta espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak

- Azterketa horrek aukera eman du tolerantzia-indizeari loturiko zenbait aldagai soziodemografiko identifikatzeko. Aldagai horien bitartez, atzerritarrekiko tolerantzia-maila handia edo txikia duten pertsonen profila ezagut daiteke.
- Taulan ikus daitekeenez, tolerantzia-maila zenbait aldagai lotuta dago; hala nola: adina, ikasketak, erlijioa, hizkuntza, diru-sarrerak, ekonomia-egoera, lanbidea, estatusa, ideologia, naziotasun-sentimendua eta identitate-sentimendua.

Ondorioak

1. Oro har, EAEko herritarrek ez dute arazotzat jotzen atzerritik datozenen immigrazioa. Hamarretik batek baino ez du uste fenomeno hori Euskadiko arazo nagusietako bat dela. 2010eko barometroarekin alderatuta, EAEko herritarren jarrerak hobera egin du; toleranteagoak dira, eta ez hain murriztaileak, atzerritarrekin.
2. Hala ere, ikuspegi orokor horren barruan, iritzi desberdinak eta jarrera anibalenteak ere badaude; hau da, jarrera argi eta garbi irekiak eta toleranteak daude, batetik, eta jarrera gogorragoak, bestetik.
3. “Kulturantzitasun epidermikoa” dagoela esan daiteke; bestela esanda, gizartea tolerantea da aniztasunaren alderdi azalenekoenekin (jaketxeak irekitzea, etorkinek beren saltokiak irekitzea eta abar), baina, era berean, tolerantzia txikiagoa agertzen du erakundeetan eta gure gizarteko gizarte-errealitate estrukturaletan aldaketak egitea eskatzen duten gaiekin (hezkuntza edo erlijio-guneak irekitzea, adibidez).
4. EAEko biztanleek lanpostuari loturiko immigrazio-politiken alde egiten jarraitzen dute. Hala erakutsi dute beste azterlan eta ikerketa batzuek ere. EAEko herritarren %76,4 etorkinei sartzan uztearen aldeko da, baldin lan-kontratua badakarte. Hala ere, krisiaren eragina agerikoa da, lanari loturiko gaietan iritziak okerrera egin baitu.
5. EAEko herritarrek atzerriko etorkinekiko aurreiritziak eta zenbait estereotipo oker dituzte oraindik ere, baina aurreko urteetan baino gutxiago. Estereotipoak eta aurreiritziak, neurri batean, autonomo direla ematen du, benetako gertaerak kontuan hartzen baditugu. Kezkagarria da, bereziki, immigrazioa herritarren segurtasunarekin lotzen duen aurreiritzia.
6. Atzerritarrak etortzeari lotuta, ziurgabetasun eta susmo handienak eragiten dituzten alderdietako bat EAEko biztanleen ongizate-estatu mantentzea da.
7. Tolerantzia-indizeak erakusten du EAEko biztanleek, oro har, immigrazioarekiko jarrera eta iritzi hobea dutela. Nolanahi ere, 2010eko datuen aldean hobekuntza izan bada ere, urrun gaude 2008an erakutsitako tolerantzia-mailatik.
8. Biztanleak diskriminatzen dituzten zenbait aldagai soziodemografiko daudela ikusi da. Aldagai horien artean, nabarmendu nahi dugu askotariko analisietan erakutsi beharreko prestakuntza-maila; dirudienez, horrek du jokabideak eta jarrerak iragartzeko eta diskriminatzeke ahalmen handiena. Hona hemen aipagarriak diren beste aldagai batzuk: norberaren ekonomiarekin pozik egotearen balioztatze subjektiboa, lanbidea, ekonomia-jarduera eta familiaren hileko diru-sarrera garbiak (atzerritik etorritako etorkinen lanerako gaitasunaren aurrean zaugarri garelako ematen du horrek) eta elizkoitasuna (horrek ekar dezakeen zama dogmatikoarekin eta gizarte-aldaketan aurrean malgutasun txikiagoa izatearekin).